


Zahartzaroaren errepresentazioak

Transmititutako balioak eta horien eragina arkitekturan

Laburpena: Azkenaldian komunikabideek zahartzaroaren irudi positibo eta alaiak sortzen dihardute. Baina zer dago errepresentazio horien azpian? Zer balio transmititzen dira? Errepresentazioek transmititutako mezua arriskutsuak dira eta arkitektura, hein handi batean, haien euskarria da. Zer paper izan behar du arkitekturak zaharrekiko?

Abstract: Recently, the mass media are creating a new positive and cheerful image about old age. However, what is under this representation? Which values are communicated? The message behind these new representations is dangerous and architecture, if does not question it, can be a supporter also. What posture should architecture have about the oldies?



Itsaso Larramendi, Ander Zangitu
Arkitektoak

Gako-hitzak: zahartzarora, representazioak, balioen transmisioa, Well-Off Older Folks

Keywords: old age, representations, value transmissions, Well-Off Older Folks

Jasotze data: 2016-02-10
Onarpen data: 2016-02-15

Arkitektura ez da neutroa, eta ideia hau abiapuntutzat hartuz, neutro aldarrikatzen den arkitektura hori birpentsatu ezean, gure gizartearen balio hegemonikoak transmititu eta errepikatuko ditugu. Kolektibo espezifiko bati bideratutako arkitektura egiten badugu beraz, beharrezkoa izango da gizarte-talde horrekin dugun erakuntza sozialaz hausnartzea eta zalantzan jartzea. Zer da zahartzarora? Zein aurreiritzi eta irudi-kolektibo ditugu zahartzaroaren inguruan? Beti berdinak izan al dira?

Zahartzaroaren errepresentazioa aldatuz joan da historian zehar, esleitu nahi izan zaizkion eginbeharren arabera. XVIII. mendera arte, gizartetik bereizi eta arima heriotzerako prestatzen zuten heinean hartzen ziren aintzat edadetuak. Hori zen bizitzaren azken aroan duintasuna lortzeko bide egokia, lanean jarraitu behar bazuten, ezin zutelako gizarte-arauak eskatzen ziena bete. XVIII. Mendean, aldiz, burgesia, eta harekin batera familiaren ideia, paradigma nagusi bilakatu ziren eta, ondorioz, adinekoen rola aldatu egin zen. Orduan, adinekoak familiako patriarka gisa errepresentatzen ziren eta aldi berean zaharren eta umeen arteko erlazioaren ikuspegi erromantiko eta idealizatu eraiki zen. Horrek guztiak aipaturiko familiaren ideia indartzea zuen helburu, hurrengo bi mendeetan zehar garatuko zena. Geroago, XIX. mendearen bukaeran, zaharrak oinarritzko elementu bilakatu ziren familiaren zaintza-lanak kudeatzeko, emakumeak soldatapeko lanean hasi baitziren (Bernández, 2009: 39).

Zahartzaroaren egungo errepresentazioak

Gure garaiko egoera, ordea, guztiz bestelakoa da. Gizartea zahartzen ari da, historian inoiz ez bezala, eta familia-eredua aldatu eta berau osatzen duten banakoen kopurua murriztu

egin da. Belaunaldi ugarietako pertsonak bizikide dituzten familiak gero eta urriagoak dira, eta, aldi berean, emakumeak soldatapeko lanean jardutearen ondorioz, haien zaintzaile-papera korapilatu egin da. Faktore hauengatik guztiengatik, zahartzarora bizitzaren gainbehera soil izatetik arduran hartu beharreko gizarte-arazo bilakatu da, baita etekin ekonomikoa sor dezakeen garai ere. Merkatu-aukera berriak sortzen ari dira zahartzearen inguruan: edadetuaren zaintza familiarik kanpo, gorputz zaharren medikalizazioa, nagusiei bideratutako aisialdi-forma berriak eta abar. Zaharrak, beraz, politika publikoen eta kontsumo-estrategien helburu bilakatzen ari dira, kontsumo-objektu hain zuzen ere. Prozesu horretan zahartzaroaren bihurteta sinbolikoa ezinbestekoa da, hau da, kolektibo honen irudikapen duina sortu behar da merkatuaren zikloetan parte har dezan.

Komunikabideek zahartzaroaren irudi positibo eta alaiak sortzen dihardute, egungo zahartzaroaren irudikapena eraikitzen. Genuen eredu geldo eta pasiboa dinamiko eta aktibo bilakatzen ari da. Horren adierazle dira WOO Fak (Well-Off Older Folks), zahartze aktiboan oinarritzen den Ipar Amerikatik ekarritako eredu (Medina, 2014). Zaharren belaunaldi berri bezala aurkeztu arren, jada gizartean errotutako gaztetasunaren balioetan (kontsumoa, aktibitatea, produkzioa...) oinarritzen diren adinduak dira. Irudikapen berri horrek, sorkuntza horrek, zahartzaroaren biktima-imajina desmitifikatzen du irudi dekadentea deuseztatuz, norbanako horiek ez baitira «zahar» sentitzen. Horrez gain, irabazizko eta luxuzko irudia helarazten dute eta oso desiragarriak dira egungo merkatuarentzat. Haatik, euren bizitza-estiloak iritzi negatiboak sortu beharrean, gizarteari onurak ekartzen dizkion ekintzak burutzen

dituzte. Modari jarraitzen diote, elikadura osasuntsua eta ongizate psikologiko altua izaten saiatzen dira, baikorrak dira, abenturazaleak, kirolariak... eta garrantzitsuena, erosteko ahalmen handia dute. Gure inguruan WOOF etiketa ezaguna ez den arren, zahartzaroaren irudikapen berri hori eta horrek gordetzen dituen balioak modan daude hemen ere. Horren adierazle dira orotariko hedabideek zahartzaroaren inguruan helarazitako berriak, zaharren bizitzarekiko poztasuna, eta, batez ere, haien gaitasun ekonomikoa goraiatzatzen dutenak¹.

Iruditegi berri honek emakume zaharrengan duen eragin espezifiko nabarmentzekoa da ere. Feminitatea, eraikuntza sozial bezala, edertasunaren eta gorputzaren gehiegizko errepresentazioan oinarritzen da. Ondorioz, emakumeak zahartzen diren heinean eta edertasun-gaztetan hori desagertzen denean, gizarteak helarazitako botere soziala galtzen dute, horrek dakarren bazterketa eta gaitzespenarekin. Zahartzaroaren errepresentazio berri honekin edertasunaren berpizkundea bultzatzen da, baina adinaren estetika zintzotasunez hartu beharrean, gaztaroko edertasun-kanonak errepikatuz².

Errepresentazioen arriskuak: arkitektura berria ala berdina?

Zer dago errepresentazio ororen azpian? Zer ezkutatzen dute? Zahartzaroaren ezaugarri tabuak ez dira gizarteaz azaleratzen, ezta haren irudikapenetan ere. Ezkutatu, deuseztatu edota gorde egiten dira; hor daude, baina aldi berean ez dira existitzen. Asunción Bernándezen hitzetan, «egungo gizarteetako elementu lizunena izanen da [heriotza]: sexuan baino gehiago, gaur egun, tabua heriotzaren errepresentazio eta hizkuntzan dago» (Bernández, 2009:33). Errepresentazioak, beraz, gizarteaz

¹ Coca, C. (2016-01-10): «La edad de oro», El Correo, 20-21.

Huete, L. (2005): «La invención de una nueva edad», <http://elpais.com/diario/2005/05/08/eps/1115533610_850215.html> (Kontsulta: 2016-01-22).

² Gero eta ohikoagoak dira gurean emakume edadetuen edertasuna goraiatzatzen duten iragarki eta artikulua. Adibide gisa ekartzen ditugu «Las diez ancianas más sexys del mundo» [(2013) <http://www.abc.es/estilo/gente/20130516/abci-diez-ancianas-sexys-mundo-201305151252_1.html> (Kontsulta: 2016-01-26)] eta «La vejez más bella» [Dunn, F. (2015) <https://i-d.vice.com/es_mx/article/la-vejez-mas-bella> (Kontsulta: 2016-01-14)] artikulua.

irudikatzen moduak dira, balio jakin batzuk adieraztekoak. Ez dira mundu bisualaren iruzur soilak, munduaren ikuspegi objektibatu adierazteko moduak dira, benetako bilakatu eta plano materialera igaro direnak (Debord, 2015: 38), errealitatea moldatzeko gaitasuna baitute. Munduaren konplexutasuna murrizten dute, gertaerak eta ideiak ordezkatu egin daitezkeela ulertaraziz (Bauer, 2016: 44). Horrenbestez, errepresentazioak sortu eta transmititzeko hainbat bide daude: mass-mediak, arkitektura, hezkuntza... baina beti helburu berarekin: neutro itxuradun eredu hegemonikoak sortzea, irudi uniforme eta bakarrean adieraziz. Noam Chomsky-k zera dio: «Mass-mediak helburua [...] ez da informatzea eta gertatzen dena lehen planora ekartzea, iritzi publikoari forma zehatz bat ematea baizik, boterean dauden indar dominatzaile korporatiboaren agenden arabera dena» (Chomsky eta Herman, 1988).

Arkitektura eta hirigintza alorretan ere baditugu errepresentazio propioak, lanaren helburu eta jarduteko modu nagusiak irudikatzen dituztenak. Zahartzaroaren irudikapen berriekin lotuz, esan daiteke, batean zein bestean nolakotasun berdina direla nagusi. Arkitektura ere kontsumo-produktu bilakatu da azken urteetan, arkitektomarkaren ideia sustatu da eta hirien ekonomien giltza bilakatu dira marka-eraikin horiek. Estetika konkretuak sortzea da helburu nagusia, identifikagarriak direnak eta, ondorioz, erraz sal daitezkeenak. Azken finean, itxurakeriaren aroa da gurea eta arkitektura ere ez da hortik kanpo geratzen. Ekonomiak eta espektakuluak gure bizitzan gain duten botereak gure izatearen zentzua moldatu du, prozesu horretan bi aro ezberdin daitezkeelarik: lehenik, Industria Iraultzak ekarritako aldaketa ekonomikoaren ondorioz, *garena* baino *daukaguna* izatera pasa ginen; egun aldez, ekonomiaren emaitza metatuek³ gure bizitza sozialaren osotasuna betetzen duten honetan, *daukaguna* izateak *geure buruaz erakusten duguna* izatera pasa gara (Debord, 2015: 42). Erakusten ez badugu, edukitzeak jada

³ Debord «ekonomiaren emaitza metatu»ez ari denean, lanorduez haratago kapitalak gure bizitzan duen eraginaz ari da. Sortu dugun aisialdi-industriaren ondorioz, ekonomiak bizitzaren esparru guztiak hartzen ditu, eta, denboraren erabilera bere menpe jartzeaz gain, munduaren eta gure izatearen pertzepzioa moldatzeko gaitasuna du.



Irudia ~ Zahartzaroaren errepresentazio zaharra.
Egilea ~ Itsaso Larramendi (2011); Flickr ilarramendi

ez du zentzurik. Horrenbestez, hiria dena baino dirudiena da garrantzitsuagoa, helarazten duena, munduari esan behar diona. Hiri produktiboa nahi dugu, garbia, irudi finkoa proiektatzen duen izaki aldaezina, betirakoa. Errealitatea, aldiz, oso bestelakoa da. Hiria zikina ere bada, gatazkatsua, erreproduktiboa, aldakorra, hilkorra... desagertu ere egiten da eraitsitako eraikin bakoitzean. Hala ere, horren errepresentazioek irudi homogenea sortzen dihardute, hiriak beregain dituen beste hainbat izaera desagerrarazten. Ukatzen diren ezaugarriok erantsiz ikuspuntu berriak sortzen dira, gehikuntzek ikusmolde aberatsagoak sortzen baitituzte.

Argazkiaren lehen irudiari begiratu beharrean azalaren atzeko aldeari begiratu behar zaio errepresentazioek helarazitako mezuez haratago joateko. Arkitektura balio-aniztasunean oinarritzeak ezkutatuta dauden taldeen

azalratzea dakar, haien ezaugarriak aintzat hartuz eta gure imajinario kolektiboa aberastuz. Tabuek gizartean sortzen dituzten pertzepzioak estali beharrean azalatu egin behar dira, kasu honetan zahartzaroarenak, horrek ekarriko baitu errepresentazio homogeenen apurketa. Bestela, gure gizartea zahartu arren haren errepresentazioetan oinarritzen bagara, behin eta berriro sustatutako balioak izango ditugu erreferentziatuz, eta arkitektura berria sortu beharrean, orain arteko arkitektura bera sortuko dugu.

///



Irudia ~ Zahartzaroaren errepresentazio berria.
Egilea eta iturria ~ Simon Da Cunha (2014); Flickr Simon Da Cunha Belves C (minilouk@wanadoo.fr)

Bibliografia

Bauer, P. (2016): «Bultza dezake irudiak politika», *Danele Sarringarte, Argia*, 2.500, 42-44.

Bernández, A. (2009): «Transparencia de la vejez y sociedad del espectáculo: pensar a partir de Simone de Beauvoir», *Investigaciones Feministas*, 0, 29-46.

Chomsky, N. eta Herman, E. (1988): *Manufacturing Consent: The Political Economy of the Mass Media*.

Debord, G. (2015): *La sociedad del espectáculo [La société du spectacle]*, Pre-Textos, Valentzia.

Medina, R. (2014): «Ancianos WOOF la nueva moda de la vejez», <<http://psicologia-rm.blogspot.com.es/2014/12/ancianos-woof-la-nueva-moda-de-la-vejez.html>> (Kontsulta: 2015-12-17).